



Ekain kobaren aurkikuntzaren 50. urteurrena ospatzeko gala berezia egingo da Victoria Eugenia Antzokian

Ekainaren 7an Antzokia Ekaingo koba bihurtuko da, duela 15000 urte inguru bizi izan ziren lehen gizakien sinbologia oholtzaratuko baita bertan. Haien ahotsa Tanya Tagaq abeslari inuitaren bitartez entzuteko aukera izango dugu, tartean Dantzaz konpainia eta Orfeoi Gaztearen kolaborazioarekin.

Mende erdia igaro da Euskal Herriko (eta munduko) arkeologian eragin izugarria izan zuen aurkikuntzaz geroztik. 1969ko ekainaren 8an Azpeitiko Antxieta taldeko Andoni Albizuri eta Rafael Rezabalek Ekain kobazuloa eta paleolitoko labar-margo ikaragarriak aurkitu zituzten. Kobazuloan, gutxi gorabehera, **70 animalia-irudi daude; 64 margotuak eta 6 grabatuak**. Zaldia da gehien ageri den irudia baina hartzak, oreinak, kapridoak... ere ikus daitezke bertan. Horregatik, **2008an UNESCOk Gizateriaren Munduko Ondare izendatu zuen** beste 17 santutegirekin batera; Altzerri eta Santimamiñe, besteak beste.

Mugarri hura ospatzeko Ekain Fundazioak, Aranzadi Zientzia Elkartek eta Ekainberrik **hainbat ekitaldi antolatu dituzte maiatza eta ekainean zehar**. Ekimen guzti hauek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak, Donostia Kulturak eta Deba zein Zestoako Udalek babestu dituzte.

Ekainaren 7a ospakizun egun handia izango da, ekitaldi nagusia. Arratsaldeko 19:00etan **Donostiako Victoria Eugenia antzokian Ekaingo kobara eramango gaituen bidaia** egingo dugu, lehen gizakien bizimodu sinbolikoa oholtzara ekarriko duena. Haien ahotsa entzungo dugu Björk bezalako nazioarteko artistekin kolaboratu duen **Tanya Tagaq** abeslari inuitaren ezarrirakantuen bitartez. Tagaq-ek inuiten kantu tradizionalak musika elektronikoa eta rockarekin nahasten ditu, eta mundu mailan errekonozimendu handia jaso du bere nortasun berdingabeagatik. Azken glaziazioa bizi izan zuten gizakiek gaur egun Kanada iparraldean bizi diren inuiten antzeko klima jasan zuten eta Ekain bezalako kobazuloak aterpe bezala erabiltzen zituzten biziraupenerako. Tagaq-ek gainera **Dantzaz konpainiarekin** bat egingo du, eta tartean **Orfeoi Gaztea, Ainhoa Aierbe aktorea eta Xabier Anuntzibai margolari gaztea** oholtzan jardungo dira. Gala honetan gainera leizearen deskubrimenduari buruzko **dokumental laburra** estreinatuko da, eta bertaratzen direnei Aranzadik espresuki argitaratuko duen **liburu monografikoa** banatuko zaie.

Ekitaldirako sarrerak jada salgai daude 12 eurotan Donostia Kulturaren webgunean eta lehiatilan.

Ekimen ugari

Urteurrenak ataza asko ditu eta honi hasiera emateko joan den maiatzaren 10ean **Debako Agirre Jauregiak erakusketa ireki zen**, non lehen aldiz **Ekaingo margoak erreplikatu zituzten kalko originalak** erakutsi diren, kobazuloan sartu ziren lehen ikerlariek egindakoak hain zuzen ere. Erakusketa ekainaren 8ra arte doan bisitatu daiteke, asteartetik larunbatera (18:00-20:00) eta igandeetan (12:00-14:00).

Victoria Eugenia Antzokiko gala eta erakusketa borobiltzeko hainbat hitzaldi ere aurreikusi dira ekainean zehar, gaur egun ikerketa arkeologikoan diharduten zientzilariei emango baitzaie hitza. **Hitzaldi zikloa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean** egingo da, ondorengo parte hartzaileekin:

- Ekainak 4. 19:00. *Nola aldatzen diren gauzak! Gipuzkoako Paleolitoa, 35 urteetako jarduera arkeologikoaren ondoren.* Alvaro Arrizabalaga, UPV/EHU
- Ekainak 11. 19:00. *Caballos digitales: nuevos descubrimientos e investigaciones en el arte parietal de la cueva de Ekain.* Blanca Ochoa-Fraile, UPV/EHU
- Ekainak 20. 19:00. *Goi-Azken Magdalen-aldi Azil-aldi trantsizioa Kantauriar erlaitzean.* Daniel Ruiz-Gonzalez, UPV/EHU.
- Ekainak 27. 19:00. *Entorno a Ekain: nuevos descubrimientos e investigaciones sobre el arte paleolítico en Euskal Herria.* Diego Garate Maidagan, IIPC.

Azkenik, Ekainberrik ere ohiko jardueretan ospakizun hau txertatuko du, esaterako **Nazioarteko Koben Egunean** edota **Ekainfest** jaialdian, azken hau ekainaren 9an Zestoan ospatuko dena.

Aurkikuntza

Ekaingo haitzuloa **Madeleine aroko labar-pinturengatik** da ezaguna, bereziki arte franko-kantabriarraren irudirik eder eta aberatsenetakoa diren Zaldimultzoen pinturengatik. Deskubrimenduaren ostean, Aranzadi Zientzia Elkarteko historiaurre saileko arkeologoek ondare hau ikertu eta gizarteratzeko ahaleginak egin zituzten, Jose Miguel Barandiaran eta Jesus Altunaren zuzendaritzapean. 2008an Ekaingo replika ireki zen, Ekainberri izena hartu zuena. Ikerketa arkeologikoak ez dira eten, azken urteotan deskubrimendu berriak egin baitira, batik bat teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerez baliatuz.



El teatro Victoria Eugenia acogerá una gala del 50 aniversario del hallazgo de la cueva de Ekain y sus pinturas

El 7 de junio el teatro se convertirá en cueva y viajaremos 15000 años atrás para experimentar los modos de vida y la simbología de los primeros grupos humanos. Escucharemos la voz de estos primeros seres humanos a través de los cantos de garganta de la artista inuit Tanya Tagaq y con la participación, entre otros, de Dantzaz konpainia y el Orfeón Gazte.

Este año se cumple medio siglo del hito que marcó las investigaciones arqueológicas en Euskal Herria y el mundo. El 8 de junio de 1969, los azpeitiarras del grupo Antxieta Andoni Albizuri y Rafael Rezabal encontraron la cueva de Ekain y sus impresionantes pinturas rupestres del paleolítico. En la cueva existen, aproximadamente, **70 figuras de animales; 64 pinturas y 6 grabados**. El caballo es la figura más representada, pero también hallamos osos, ciervos, cabras... Por este motivo, **en 2008 la UNESCO declaró Ekain Patrimonio Mundial de la Humanidad** junto a otros 17 santuarios del arte rupestre como Altxerri y Santimamiñe.

Para celebrar este hito de nuestra historia reciente la Fundación Ekain, Aranzadi y Ekainberri han programado **diversos actos** durante mayo y junio. Las actividades cuentan con el respaldo del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia Kultura y los ayuntamientos de Deba y Zestoa.

Como acto principal el **teatro Victoria Eugenia de Donostia acogerá una gala homenaje el 7 de junio** a las 19:00 horas. Un viaje que nos llevará a la cueva de Ekain y sus pinturas, donde escucharemos la voz de los primeros seres humanos a través de los cantos de garganta de **Tanya Tagaq**, artista inuit consagrada internacionalmente por su colaboración con Björk. Tagaq es reconocida internacionalmente por fusionar los cantos tradicionales de la etnia inuit con música rock y electrónica, una mezcla única que nos retrotraerá a las gélidas condiciones climáticas de la última glaciación. No en vano, los seres humanos que encontraron cobijo en Ekain sobrevivieron en un clima similar al existente actualmente en el norte de Canadá, lugar de origen de los pueblos inuit. Tagaq estará acompañada en el escenario por la **compañía Dantzaz**, y la **gala se completa con la participación de la actriz Ainhoa Aierbe, el muralista Xabier Anuntzibai y el Orfeoi Gazte**. Además, se estrenará un **documental sobre el descubrimiento de Ekain** y el público recibirá con la entrada un **libro monográfico** editado por Aranzadi para la ocasión.

Amplio programa

El 50 aniversario del descubrimiento de Ekain dió su pistoletazo de salida el pasado 10 de mayo en Deba, donde se inauguró **una exposición en el Palacio Agirre** que muestra por primera vez **los calcos originales de las pinturas rupestres de Ekain**, realizados por los primeros investigadores que entraron a la cueva. La exposición se prolongará hasta el 8 de junio y la entrada es libre en horario de 18:00 a 20:00 (martes a sábado) y de 12:00 a 14:00 (domingo).

Además, para reforzar la labor divulgativa de los nuevos hallazgos en materia de arqueología prehistórica, se han organizado **varias conferencias en Koldo Mitxelena Kulturunea**, donde investigadoras e investigadores en prehistoria darán cuenta de los últimos avances científicos en la cornisa cantábrica:

- 4 de junio. 19:00. *Nola aldatzen diren gauzak! Gipuzkoako Paleolitoa, 35 urteetako jarduera arkeologikoaren ondoren.* Alvaro Arrizabalaga, UPV/EHU
- 11 de junio. 19:00. *Caballos digitales: nuevos descubrimientos e investigaciones en el arte parietal de la cueva de Ekain.* Blanca Ochoa-Fraile, UPV/EHU
- 20 de junio. 19:00. *Goi-Azken Magdalen-aldi Azil-aldi trantsizioa Kantauriar erlaitzean.* Daniel Ruiz-Gonzalez, UPV/EHU.
- 27 de junio. 19:00. *Entorno a Ekain: nuevos descubrimientos e investigaciones sobre el arte paleolítico en Euskal Herria.* Diego Garate Maidagan, IIPC.

Por último, y aprovechando la estela de las actividades organizadas por Ekainberri, se integrará el 50 aniversario en eventos organizados por el museo tales como el **Día Internacional de las Cuevas** o Ekainfest, que se celebra el día 9 de junio en Zestoa.

El descubrimiento

La cueva de Ekain es conocida por **sus pinturas rupestres de época Magdaleniense** (entre hace 15.000 y 12.500 años), en especial por sus caballos, los más detallados y bellos del arte franco-cantábrico. A partir de aquel hallazgo, el equipo de arqueología prehistórica de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, capitaneado por Jose Miguel Barandiaran y Jesus Altuna, investigó este patrimonio y se esforzó por preservarlo y socializarlo. En 2008 la réplica de la cueva, Ekainberri, vió la luz, y desde entonces ha habido nuevos descubrimientos en la cueva original gracias al uso de nuevas tecnologías.